


2009

Memoria

Gipuzkoako Gurutze Gorria



Pertsonengandik gero eta hurbilago



Aurkibidea

Aurkezpena	3
Gizarte esku-hartzea eta enplegua	4
Osasuna eta Sorospena	7
Boluntarioria eta prestakuntza	9
Nazioarteko Lankidetzak	13
Gazteria	15
Gipuzkoako Gurutze Gorria	16
Ekonomia-kudeaketa	20
Kalitatea	22
Finantzaizaile /laguntzaileak	23

Aurkezpena



Lagunak:

Gurutze Gorria – Ilargierdi Gorria GKE humanitarioa, neutrala, askea, independentea eta unibertsala da. 1864ko Genevako Konbentzioan sortu zen. Bakearen Nobel Saria hiru aldiz jaso du.

180 herrialde baino gehiagotan jarduten du eta haren jarduera leku bakoitzeko gizarte-baldintzetara eta premietara egokitzen du. Gizartearekin batera aldatu gara. Egun, lurraldeko batzordeaz gain, probintzian tokiko 16 batzorde daude: Hondarribia; Irun; Errenteria; Donostia-San Sebastián; Lasarte-Oria; Andoain; Tolosa; Beasain; Urretxu; Debagoiena; Eibar-Ermua; Elgoibar; Azkoitia; Deba; Zarautz.

Oro har, sorospen- eta larrialdi-jarduerekin lotzen zaigu. Hala jarduten jarraituko dugu eta baliabideak eta gaitasuna hobetzen ahaleginduko gara. Dena den, azkenaldian, lehentasunak aldatu dira, larrialdia bezain

nabarmenak ez diren, sakonagoak diren eta berehalako ekintzarekin konpontzen ez diren gizarte-premia berriak sortu dira eta jarduera isilagoa, zailagoa eta iraunkorragoa behar dute. Askotan arreta, lan handia eta irudimena behar duten arazo horiei aurre egitea zaila da eta erakundeen laguntzarik gabe, -bereziki, Aldundia- ezingo genuke aurrera egin. Egun, erakunde horren laguntza ekonomikoarekin eta, batez ere, elkarren arteko laguntza teknikoarekin, babesik gabe eta gizartetik baztertuta daudenei, bazterkeria arriskuan gera daitezkeen taldeei, etorkinei, etab. laguntzeko gizartean esku hartzeko programak bideratzen ditugu. Egoera horiek guztiak antzeman eta jorratzeko zailtasun asko egon ohi dira eta ahalegin handia egiten ari gara, hori baita gure egungo erronka.

Barruko eta kanpoko prestakuntzari garrantzi berezia ematen diogu. Azken urtean, 553 ikastaro eman dira eta guztira 5.652 ikasle egon dira; prestatzaileak, boluntarioak, zuzendariak, batzordeko kideak prestatzea, toki-garapenean, jarrera solidarioen garapenean aplikatzea, etab.

Une honetan, gure jarduera guztien kalitate-ziurtagiriaren prozesuan gaude. Aktibotzat jotzen den erakunde orok, kalitatea lortu ondoren, berritzeko jarduerak egin behar ditu. Denbora igaro da ildo horretan lan egiten dugunetik. Horren harira, azpimarratu nahi dut Aldundiko, udaletako teknikarien eta Eusko Jaurlaritzako eta beste GKE batzuen arteko lankidetzaren beharrezkoa dela bide horietan aurrera egiteko.

Honako hauek osatzen duten taldea daukagu: boluntarioak, euren astialdia ematen dutenak; bazkideak, euren ekarpenekin baliabideak eskuratzen laguntzen digute; eta erabiltzaileak, beste kide batzuen ekarpenak baliatzen dituztenak eta gure zereginen oinarri direnak. Horrez gain, emaitzak optimizatzeko behar diren profesional teknikari gutxi batzuk kontratatzen dira. Talde horiek guztiek eta gizarteak, oro har, gure kudeaketa garbia dela ikusi behar dute eta, hala, urtero-urtero auditoretza egiten da.

Eskerrik asko gipuzkoar guztiei zeregin horiek bideratzen jarraitzeko gurekin lankidetzan aritzeagatik. Erakunde honen zati zara, gainontzeko kideak bezala. Behar zaitugu. Talde hau indartzeko, oso garrantzitsua izango litzateke bazkideak eta boluntarioak ugaritzea.

Enrique Samaniego Arrillaga
Gipuzkoako Gurutze Gorriako presidentea

Gizarte esku-hartzea eta enplegua



Gizarteratzea sustatzen dugu, enpleguaren, pres-takuntzaren eta gizarteko partaidetzaren bidez

Gizarteko esku-hartzea Gurutze Gorriak Gipuzkoan bideratzen dituen egitekoen artean funtsezko atala da. Horren bidez probintziaren gizarte-garapena ahalbidetu nahi dugu, talde ahulenen bizi-kaliatega, autonomia eta gizarteratzea hobetuz. Azken urteotan esku hartzeko arlo hori asko handitu da eta gizarte-premia berrietara egokitu da. Horrek guztiak Immigrazioaren Zentro Integraleko instalazioak zabaltzeko beharra eragin du. Gurutze Gorriak Gipuzkoan egiten dituen gizarte-arloko programa gehienak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Departamentuarekin hitzartuta daude.

Gurutze Gorriak Zarategi pasealekuko Arreta Integralerako Zentroa handitu zuen, eta 2009ko azaroan instalazio berrien inaugurazioa egin zen. 2005ean zentroa ireki zenetik, Gurutze Gorria talde horren premietara egokitu da eta azpiegitura handitzeko beharra eragin duten beste programa batzuk gehitu ditu.

Etorkinak eta errefuxiatuak gizarte-bazterkeria egoeran geratzeko arrisku gehien duten pertsonak dira. Immigrazioaren Zentro Integralak talde ahul horri laguntza ematen dio hainbat programaren bidez. **2009. urtean, gizartean esku hartzeko programen barruan 3.498 pertsona artatu ziren.**



Etorkinak eta errefuxiatuak

Lehenengo Harrera eta Gizarteratzea programak etorkinei erabateko harrera ematen die, horien oinarrizko premiak arin ditzaketen baliabideetara bideratzeko. Lehenengo harreran kudeatzen diren proiektuak honako hauek dira: harrera humanitarioko zentroetara bideratzea; familia berriz elkartzea; borondatez itzultzea, jatorrizko herrialdera itzuli nahi dutenei lagunduz; familia-harremana berrezartzea, baita asilo politikoko eskaerak ere. Horrez gain, programa horretan etorkinak gizarteratzen laguntzeko tailerrak ematen dira. Jatorrizko herrialdeetara itzultzeko eskatu duten pertsona kopurua handitu dela aipatu behar da, **2009. urtean borondatez itzultzeko 99 eskaera kudeatu ziren** (2008an, aldiz, 37). Guztira, **Lehenengo Harrera eta Gizarteratzea programan 721 pertsona artatu ziren**.

Egonaldi erdiko zentroetan baliabiderik ez duten pertsonen ostatuaren, mantenuaren eta garraioaren oinarrizko beharrei erantzuna ematen ahalgintzen gara, enplegua eta etxebizitza normalizatua eskuratu arte. **2009. urtean 144 pertsonari eman zitzaizen ostatu**.

Enplegu Planaren bidez pertsona ahulenak lan-merkatuan sartu, mantendu eta sustatzen dira, bereizkeriaren aurka borroka eginez eta lanean berdintasuna sustatuz. Banakako ibilbidea egin da eta honako hau eskaintzen da: prestakuntza, orientazioa, bitartekaritza eta sentsibilizazioa. **Interlabora Sarea** eta **Incorpora** programen xedea lanpostua lortzeko zailtasunak dituzten etorkinak eta emakumeak gizarteratzea da. Europako Gizarte Funtsak, Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, La Caixa erakundeak eta Irungo Udalak finantzatzen ditu programok. **2009. urtean, 649 pertsonak hartu zuten parte Enplegu Planaren programan**.

Arazo sozialak dituzten haurrak eta gazteak

Gizartean babesik gabeko eta arrisku-egoeran dauden haurrak eta gazteak zaintzea Gurutze Gorriarentzat funtsezkoa da. **Bakarrik dauden adingabe etorkinen inguruan egindako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen** xedea adingabeen eskubideak babestu eta bermatzea da. 2009. urtean, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak gizarteratzea xede duen CRONo proiektuaren jarduera nabarmen handitu zen. Uztailean, proiektua handitu zen Goierri aldean ezartzeko, zehazki, Beasaingo Gurutze Gorriaren bulegoan kokatu da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentuko Haurren Ataleko finantzaketari esker zabaldu ahal izan da aipatu proiektua.

Emantzipatzeko pisuak eta laguntza programaren bidez gizarte-bazterkeria egoeran geratzeko arriskuan dauden 18 urtetik gorako gazteei ostatua eta bizikidetasuna ematen dizkiegu, bizitza autonomoa eduki eta gizarteratzeko eta laneratzeko aukera ahalbidetze aldera. **Haurrak dituzten emakume etorkinei laguntzeko programaren** bidez familia etorkinei laguntza ematen diegu, bereziki, amei, boluntariotzaren bitartez gizarte-zerbitzuak eta laguntza, prestakuntza eta laguntza emozionala emanda. Aldundiak tutoretzapean dituen pisuetan laguntza- eta aisia-jarduerak garatzen dira **pisuetan laguntza emateko boluntario-programaren** bidez. **2009. urtean, gizarte-arazoak dituzten 394 haur eta gazte artatu ziren**.



Mendetasun egoeran dauden pertsonak

Ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten adinekoek autonomia izan dezaten eta euren inguruan ahalik eta denbora gehien egon daitezten lan egiten du Gurutze Gorriak. Horretarako, **2009. urtean 130.358 zerbitzu** egin zituen **garraio egokitua** zerbitzua daukagu. Halaber, **etxeko laguntza osagarriaren** bidez pertsona horien isolamendua saihestu eta gizarte-partaidetza ahalbidetu nahi da.

Tolosako egoitzan **gaixo mental kronikoentzako eguneko zentroa** daukagu eta, bertan, pertsonok

jarduera okupazionalak burutzen dituzte eta autonomia pertsonal handiagoa lor dezaten lan egiten da.

Lagundutako bainuaren bidez hondartzetara sartzeko zailtasunei irtenbidea aurkitu zaie. Horrez gain, mugikortasun urriko pertsonak anfibia aulkiarekin bainatu daitezke. **2009. urtean, lagundutako 420 bainu** egin ziren.


Kartzela eta berriz gizarteratzea – Gizartearen onerako lan egitea

Kartzela eta berriz gizarteratzea proiektuak bazterkeria-egoeran egon diren edo espetxe inguruarekin lotuta dauden etorkinak hartzen ditu aintzat. **2009. urtean, laguntza psikosoziala, gizarte- eta lan-arloko laguntza eta banakako jarraipena egin zitzaizen 94 pertsonari.**

Eskubidez gabetzeko zigorra duten pertsonen borondatez **gizartearen onerako lan egiteko** aukera ematen zaie. **2009. urtean, 117 pertsonak** Gurutze Gorriaren bitartez gizartearen onerako lanak egin zituzten.

2009AN GIZARTE ESKU-HARTZEAN ARRETA ESKAINITAKO ERABILTZAILERAK

	GUZTIRA
Adineko pertsonak	734
Ezintasunaren bat duten pertsonak	183
Zailtasun sozialak dituzten umeak	536
Etorkinak	929
Enplegu-plana	649
Zailtasun sozialak dituzten emakumeak	16
Komunitatearen mesedetan lana	259
Pobreziaren aurkako borroka	192
GUZTIRA	3.498



- Adineko pertsonak
- Ezintasunaren bat duten pertsonak
- Zailtasun sozialak dituzten umeak
- Etorkinak
- Enplegu-plana
- Zailtasun sozialak dituzten emakumeak
- Komunitatearen mesedetan lana
- Pobreziaren aurkako borroka



Osasuna eta Sorospena

Pertsonen bizitza eta osasuna babestea gure zeregin nagusietako bat da

Gurutze Gorriaren irudia, or ohar, sorospenei eta larrialdiei oso lotuta dago. Jarduera horretan esku hartzen eta baliabideak eta gaitasuna hobetzen jarraituko dugu. Arlo horretan antzeman da erakundeak jazo duen bilakaera handia, hain zuzen, gizarte-premia berrietara egokitzeko gogoagatik. Erabiltzaileen premiei eta asmoei erantzuna emateko gure zerbitzu guztien kalitatea hobetzeko lanean ari gara.

Gipuzkoako Gurutze Gorria larrialdi-egoeretan esku hartzeko prest dago. Itsasoko laguntza eta hondartzak eta igerilekuak zaintzeko sareak itsasoan pertsonen segurtasuna bermatzen du. 2009. urtean, Gurutze Gorriak Gipuzkoako **hondartza** guztiak zaindu zituen, nobedadeak gehituta eta kalitatea kudeatzeko sistema ezarrita. Hala, 2009. urtean zerbitzu horrek ISO 9001 kalitate-egiaztagiria lortu zuen. Aipatu egiaztagiria AENOREk eman zuen eta zerbitzuaren kalitatea etengabe hobetzeko lan egiten du. **Hondart-**

za-sasoian 11.594 pertsona artatu ziren.

Itsasoko Salbamendu sareak, SASEMAR sozietatearekin batera lan eginez (Sociedad Estatal de Salvamento y Seguridad Marítima), ontziei arrastoa jarraitzeko eta bilatzeko jardunak, erreka-lanak eta osasun-laguntza emateko jardunak, atoiaren eramateko eta laguntza teknikoa emateko lanak burutzen ditu. Horrez gain, kutsaduraren aurkako lanetan ere parte hartzen dugu.

Eusko Jaurlaritzako **Larrialdietako Garraio Sanitarioaren Sareko (LGSS)** zati gara. SOS DEIAK 112 zerbitzuak koordinatzen ditu gure anbulantziak, urteko 365 egunetan, 24 orduetan. **2009. urtean, 9.611 pertsona artatu genituen.**

Larrialdietan Berehalako Erantzuna Emateko Taldeek (ERIE) larrialdi-egoera batean berehala jarduteko behar diren baliabideak eman eta bermatzen dituzte. Talde horiek arrastoa jarraitzeko zereginetan parte hartzen dute eta galdu edo desagertu diren pertsonak aurkitzen dituzte, gorpuak ere berreskuratzen dituzte, lurlean eta itsasoan. **Esku-hartze psikosozialeko ERIE** bat daukagu, bereziki, estatu osoan lan egiten duena, eta katastrofe-egoeretan dihardu eta biktimen senideei eta ingurukoei laguntza psikosoziala ematen die.

Prebentzio-zerbitzuaren baliabideen antolamenduaren bidez giza baliabideak eta baliabide materialak ematen dira, kirol, kultur eta herri-ekitaldietan eta ekitaldi publikoetan arreta soziosanitarioa emateko. **2009. urtean, ekitaldi jendetsu horietan 1.499 pertsona artatu ziren.**

Osasuna sustatzea

2009. urtean prebentziozko kultura sustatzeko kanpainak egin ziren. **Istripuak prebenitzeko** kanpainak: - "Udan ere maite ezazu zeure burua". - "Prebenitzea bizitzea da. Etxeko istripuak". Eta **osasuna sustatzeari** dagokionez: -"Malaria mugarik gabeko gaixotasuna" eta lehen laguntzako ikastaroak ikastetxeetan.



2009AN LAGUNDUTAKO ERABILTZAILIAK

Programak	Lagundutako erabiltzaileak
LGSS	9.611
Prebentzio-zerbitzuak	1.313
Hondartzak	11.594
Itsas salbamendua	82
Guztira	22.600

Prebentzio-zerbitzuak	Lagundutako erabiltzaileak
Kirol ekitaldiak	789
Ikuskizunak eta kontzertuak	133
Gizarte eta ekintza kulturalak	297
Bertako eta zaindarien jaiak	280
Guztira	1.499

Baliabide motak	Unitateak
Lehen laguntza baseak	12
Itsas salbamendu baseak	4
Anbulantziak	26
Larrialdietarako beste ibilgailuak	56
B mailako ontziak	6
C maila aurreratuko ontziak	5
C mailako ontziak	5
Erreskateko ur-motorrak	9
Guztira	123

Boluntariotza eta prestakuntza



Gurutze Gorriko boluntarioen konpromisoa berehalako erantzun eraginkorra ematea da, giza sufrimendua arintzeko

Borondatezko lanak egiten dituzten milaka pertsonen gogoaren bidez, boluntario horien ekarpenik gabe bideratu ezingo liratekeen gizarte-zerbitzuak eta jarduerak gauzatu daitezke. Boluntariotza gure erakundearen funtsezko printzipioetako bat da eta horren bidez gizarte-partaidetza solidarioa sustatzen dugu.

2009. urtearen amaieran, Gipuzkoako Gurutze Gorriak **3.031 boluntario** zituen eta erakundearen oinarri dira. Hala, egunero-egunero ahulezia-egoeran dauden pertsonentzako eta taldeentzako interes orokorreko jarduerak garatzen laguntzen dute. Une oro konpromisoa hartuko duten eta laguntzeko eta parte hartzeko prest egongo diren boluntario motibatu eta gaituak behar ditugu.

Boluntarioon ekintzaren bidez, gure gizartea geroz eta indartsuagoa da. Izan ere, boluntario horiek laguntzen diete adinekoei euren bakartasun-sentimenduei aurre egiten eta gizarte-isolamendua gainditzeko; istripuetako biktimei laguntza ematen diete eta erreskate-lanetan parte hartzen dute; haurrei eta gazteei balioak erakusten dizkiete; etorkinak gizarteratzen laguntzen dute; etab. Azken batean, gizarte justuago eta solidarioagoaren alde egiten dute borroka.

Boluntario gehien duten jarduerak edo ekintzak ho-

nako hauek dira: sorospena eta larrialdiak; gizarte esku-hartzea; prestakuntza; Gazteen Gurutze Gorria; boluntarioak eta partaidetza; antolamendua eta kudeaketa.

Azken urteotan boluntarioen kudeaketa hobetzeko konpromisoa hartu dugu, toki-erakundearen sareak metodologia komuna jarrai dezan aukera emango duen kalitatezko sistema aplikatuta. Sistema horren xedea boluntario izan nahi diren eta, noski, jada badirenen lana ahalik eta ondoen kudeatzea da.

2009. urtean boluntarioak **sentsibilizatzeko eta lortzeko** kanpainak garatu ziren. Kanpaina horien helburua ez da bakarrik boluntario berriak lortzea, baita boluntarioek burutzen duten lana eta gizarteari egiten dioten ekarpena ezagutaraztea ere. **2009. urtean, 197 boluntario berri sartu ziren probintziako toki-erakundeetan.**

Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduak Solferinoko (Italia) gudaren, gure erakundea sorrarazi zuen gertaera historikoaren, **150. urteurrena** ospatu zuen. Hori dela eta, hainbat ekitaldi egin ziren “Herrixka Humanitarioa” izenekoan: erakundeko milaka boluntario bildu zituen kanpamendu handia. Ekainaren 27an tradiziozko **Fiaccolata** ospatu zen. Bertan, **Gipuzkoako boluntarioek parte hartu zuten**.

Ospakizun horretan, desfile bat egiten da zuziekin, 1859. urtean Henry Dunant jaunari Solferinoko gudan zauritutako soldaduak Castiglioneko postu-medikoraino eramaten lagundu zioten erizainek egin zuten ibilbi-dea gogora ekartzeko; 1992. urtetik ospatzen da.


Beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea

2009. urtean **Sareginez** sarean parte hartzen jarraitu genuen. Sareginez irabazi-asmorik gabeko erakunde-sarea da eta Gipuzkoan boluntarioak ditu, batzorde iraunkorren eta lantaldeetan parte hartuta. Gure ustez, boluntario-lanak egiten dituzten gainontzeko erakundeekin elkarlanean aritzea oso garrantzitsua da.

GIPUZKOAKO BOLUNTARIOTZAKO DATUAK

BOLUNTARIOAK GIPUZKOAN		3.031
Gizonezkoak	1.684	56%
Emakumezkoak	1.347	44%

BOLUNTARIOTZA JARDUEREN ARABERA



2009an prestakuntza-eskaintza eta ikasle-kopurua handitu dugu

Gurutze Gorrian, urtez urte lanean dihardugu gure prestakuntza-eskaintza zabaltzeko. 2009an gure boluntarioei eskaintako prestakuntza nabarmen handitu da. Urte honetan ere, gure eskaintza ikastaro berriekin zabaltzeaz gain, aurreko urteetako prestakuntza eskaintza finkatu dugu.

2009rako helburuak boluntarioei zuzendutako prestakuntza handitzera eta ikastaro berriak eskaintzera bideratu ditugu, besteak beste, gizarte-ratzeari buruzko prestakuntza eta lanean sartzeko ikastaroak areagotu dira. Prestakuntzaren alorrean egindako hobekuntza jarraitua lortzeko ahalegina prestakuntzaren kudeaketa-sistemaren kalitate-egiaztagiriak bermatzen du, UNE-EN ISO 9001:2008 Arauaren arabera. Gipuzkoako 14 toki- eta eskualde-erakundek eskaini dute prestakuntza.

Gurutze Gorriaren prestakuntza-eskaintza bi eremu nagusitan egituratzen da:

Boluntarioei eta langile ordainduei zuzendutako **barne-prestakuntza**. Prestakuntza horren helburu dira: sartu berrien prozesuan laguntzea; antolaketan oinarritutako kultura komuna erraztea; ekintzarako gaitzea eta erakundea suspertzeko motibatzea eta laguntzea.

Kanpo-prestakuntza gizarte-partaidetzarako, eta herritar guztientzako prestakuntza. Hezkuntza formalarekin lotuta ez dauden prestakuntza-jarduerak: haurtzarora, gaztarora, lanerako prestakuntza, ohitura osasungarriak, etab. Prestakuntza herritar guztientzat: osasun-eremuak, lehen sorospena, istripuak saihestea, giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa. Halaber, taldeei, erakundeei, enpresei eta entitate publikoei zuzendutako prestakuntza ere eskaintzen dugu.




2009an, 5.652 pertsonak Gurutze Gorriako prestakuntza eskaintzan parte hartu zuten, haueetatik gehienek, lehen laguntzetako ikastaroak burutu zituzten.

2009 PRESTAKUNTZA DATUAK

	2008	2009	Hazkundera
Eskainitako ikastaro kopurua	438	553	26%
Prestaturiko boluntario kopurua	576	1.009	75%
Irakasle kopurua	88	111	26%
Ikasle kopurua	3.863	5.652	46%

BARNE ETA KANPO FORMAKUNTZA	KURTSOAK	IKASLEAK
Garapen Instituzionalerako prestakuntza	39	663
Gizarte-partaidetza eta gizarteratzeko prestakuntza	234	1.504
Esku-hartzerako prestakuntza	30	309
Herritar guztientzako prestakuntza	250	3.176
GUZTIRA	553	5.652

Ikasle kopuruaren bilakaera



Nazioarteko Lankidetzza



Gizartea balore humanitarioen gainean sentsibilizatzea eta heztea, eta giza duintasunarekiko errespetua hobetzea da gure helburuetako bat

Gurutze Gorriaren nazioarteko lankidetzaren xedea “persona ahulekin lan egitea” da. Nazioarteko lankidetzaz Gurutze Gorriak pertsona ahul eta baztertuak babesteko duen konpromisoaren kanpoko proiektzioa da, eta bakearen aldeko ekintzan oinarritzko osagaia da.

Honako hauek dira Gurutze Gorriak nazioarteko lankidetzari dagokionez dituen helburu nagusiak:

- Ahulezia-egoeran dauden pertsonen eta komunitateen bizitza hobetzen laguntzea, ahalik eta modu egonkor eta iraunkorrean.
- Balore humanitarioei bide ematea eta giza duintasunarekiko errespetua hobetzea.
- Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren nazio-mailako elkarrekin suspertzea, euren agindu humanitarioa hobe bete ahal izan dezaten.
- Gizartearen kontzientzia solidarioa areagotzea.

Gipuzkoako Gurutze Gorriak Afrika, Hego Amerika, Europa eta Asiako herrialde ahuletako komunitateek ekonomia eta gizartean aurrera egin dezaten esku hartzen du. Herrialde eta herri askok ezin dute haien garapena bideratu ezta euren bizi baldintzak hobetu ere hainbat baldintza direla eta, bai historikoak bai ingurumenari dagozkionak: hondamendi klimatologikoak, hala nola, uhaldia edo lehortea, gerrak, aberastasun naturalak esportatzeko ezintasuna birtarteko materialik ez izateagatik, etab.

Horretarako, **garapenerako lankidetz**a proiektuetan dihardugu, talde horiek indartu daitezten eta bizitza hobea goza ahal izan dezaten, bai haiek baita euren ondorengoek ere, aukerak hobeto aprobetxa ditzaten, garapen iraunkorra bultzatuz.

Bestalde, **laguntza humanitaria**o talde ahulentzat zuzendutako erantzun solidario gisa sortu zen, euren segurtasun ekonomikoa edo soziala arriskuan ikusten dutenentzat zuzenduta. Gurutze Gorriak hondamendiren bat jasan duten herriei eskaintzen die laguntza humanitaria:

- Hondamendi naturalak: lehortea, lurrikarak, uholdeak...
- Gizakiak sortutako hondamendiak: gerrak, exodoak...

2009an Gipuzkoako erakunde publikoetatik **179.053,10 euro** bideratu ziren **garapenerako lankidetz**a proiektuetarako eta **21.000 euro laguntza humanitariorako**. Era berean, **16.559,84 euro bildu** ziren partikularrek emanak.

Garapenerako, bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntza

Funtsezkoa da ezberdintasunekiko errespetua sustatzea, giza eskubideen gainean sentsibilizatzea, nazioarteko lankidetz

a eta bakerako hezkuntza bultzatzea, pertsonarik ahulenen beharrak nabarmenduz.

Horretarako, heztea eta sentsibilizatzea helburu duten proiektuak garatzen dira hainbat eremutan, bai haurtzaroari eta gaztaroari zuzendutakoak, bai herri-tar guztiei bideratutakoak.

2009an hainbat jarduera burutu ditugu eta aldi berean, zenbait feria eta ekitalditan parte hartu dugu,

guztiak garapenerako lankidetzarekin eta giza eskubideekin loturikoak:

- Zarauzko Gobernu Kanpoko Erakunde Ferial
- Mundumira
- Giza eskubideen nazioarteko eguna
- Eusko Jaurlaritzak finantzaturako giza eskubideen aldeko kanpaina

Halaber, giza eskubideei eta nazioarteko zuzenbide humanitarioari dagozkien hainbat gai buruzko ikastaroak eta monografikoak bideratu ditugu.

Monografikoak eta tailerrak:

- Pertsonen kontrako minak
- Ama-haurren osasuna
- Ingurumena
- Genero berdintasuna

Ikastaroak:

- Printzipio eta baloreetan prestatzeko prestatzailea
- Nazioarteko begiraleak

Erakusketak:

- Milurtekoko 8 helburuak
- "Uretan zehar mugituz" erakusketa

Guztira 837 lagunek parte hartu dute 2009an zehar antolatutako diren ikastaro, tailer eta jardueretan.

Gazteria



Gurutze Gorriaren gazteria sailak haur eta gazteei zuzendutako jarduerak sustatzen ditu euren garapen integrala bultzatzeko

2009. urtean zehar, Gazteen Gurutze Gorriaren jardueretan zuzenean edo zeharka parte hartu duten haur eta gazte askoren bizi kalitatea hobetzen eta babesten lagundu duen lana garatu da.

Gazteen Gurutze Gorria (GGG) Gurutze Gorriaren gazteen atala da, 16 eta 30 urte bitarteko gazte boluntarioz osatua. GGGren jarduera transformatzailea, haur eta gazte ahulenei babes emateaz arduratzen da batez ere, euren garapen integrala eta autonomia pertsonala bultzatuz eta sustatuz, hezkuntza, parte-hartze eta esku-hartze sozialaren bidez.

2009an egin ditugun jardueren artean, aipatzekoa da Gipuzkoako GGGren funtsezko jardueretako bat: azken bost urteetan zehar aurrera eraman den **udako kanpamentua**. Kanpamentu horretara 50 haur inguru doaz, 12 begirale eta sukaldari batekin, azken horiek guztiak langile boluntarioak.

tzioa, hezkuntza, parte-hartzea eta gizartearen esku-hartzea sustatzea gizarte-arrisku edota gatazkan dauden haur eta gazte taldeekin. **Osasuna sustatu eta arlo horretan hezteko programan GIB/HIES** bezalako gaixotasunak kutsatu ez daitezen lan egiten da. Hori dela eta, abenduaren 1ean, HIESaren Aurkako Nazioarteko Egunean, hainbat sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduera gauzatu ziren. Bertan, Donostiako unibertsitate campusetan eta Gipuzkoako hiriburuko diskoteketan 1.600 gazte ingururi informazioa banatu zitzaion eta Elgoibarren informazio- eta dibulgazio-seminario bat burutu zen.

Gure helburuen artean dugu sentsibilizazioa, preben-

Gipuzkoako Gurutze Gorria

Donostia

Bulego probintziala

Ategorrieta Etorbidea, 10 - 20013 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 22 22 22 / Fax: 943 32 65 19

Inmigrazio Zentro Integrala

Zarategui ibilbidea, 72 - 20015 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 32 77 95 / Fax: 943 32 65 19

Batzar lokala

Ategorrieta Etorbidea, 10 behea - 20013 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 32 09 89 / Fax: 943 32 10 55

Anbulantzi postua

Tolosa Etorbidea, 89 - 20018 Donostia-San Sebastián

Itsas Salbamendua

Muelle z/g - 20003 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 43 15 07

Presidentea: Enrique Samaniego Arrillaga

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, LOGS, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, prestakuntza, enplegu-tailerra, nazioarteko lankidetzak, Komunitatearen mesedetan lana, etxeko laguntza osagarria, gazteria, enplegu-plana, Komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, itsas salbamendua, hondartzetako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua.

Deba Garaia

Elorregui Auzoa z/g - 20560 Oñati
Tel: 943 76 55 76 / Fax: 943 76 08 12

Presidentea: Clemente Domingo Malvadi

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, LOGS, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, nazioarteko lankidetzak, Komunitatearen mesedetan lana, prestakuntza eta gazteria.

Andoain

Plazaola, 2 (egoitza). 4 posta kutsatila
Paseo Txistoki (postua) - 20140 Andoain
Tel: 943 59 44 77

Presidentea: Pedro Unanue Orcoyen

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, garraio egokitua eta Komunitatearen mesedetan lana.

Azkoitia

Herriko Enparantza (egoitza). 4 posta kutsatila
Alcibar auzoa z/g (postua) - 20720 Azkoitia
Tel: 943 85 32 97

Presidentea: Aitor Errazu Uría

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, prestakuntza, Komunitatearen mesedetan lana eta igerilekutako sorospena.

Beasain

Urbialde Plaza,5-6 (egoitza)
Ittola industrialdea, pab. B-7(postua) - 20200 Beasain
Tel: 943 16 21 50 / Fax: 943 16 15 16

Presidentea: José M. Baztarrika Ugartemendia

Jarduera nabarmenak: Enplegu-plana, garraio egokitua, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, larrialdiak, asteburuko LOGS, mendiko bilaketa eta salbamendua, lurreko prebentzio-zerbitzuak, prestakuntza, enplegu-tailerra, komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, nazioarteko lankidetzeta, Komunitatearen mesedetan lana eta gazteria.

Deba

Calbeton Etorbidea, z/g - 20820 Deba
Tel: 943 19 10 32 / Fax: 943 19 18 48

Presidentea: M.^a Jesús Urgell Ubau

Jarduera nabarmenak: Hondartzetako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua, mendiko bilaketa eta salbamendua, lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Eibar-Ermua

PA-8 autopista ordainlekua - 48260 Ermua
Tel: 943 17 62 48 / Fax: 943 17 17 17

Presidentea: Pedro Pérez Fernández

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, garraio egokitua, komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, enplegu-plana, prestakuntza, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, komunitatearen mesedetan lana eta gazteria.

Elgoibar

Pl. Padre Aguirre, 3 - 20870 Elgoibar

Tel: 943 74 38 64 / Fax: 943 74 42 74

Presidentea: Txomin Zabaleta Aranberri

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, LOGS, komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, prestakuntza, etxeko laguntza osagarria eta gazteria.

Hondarribia

Molla Ibilbidea, 7 - 20280 Hondarribia

Tel: 943 64 17 27 / Fax: 943 64 59 46

Presidentea: Iñaki Sagarzazu Othaitz

Jarduera nabarmenak: Itsas salbamendua, lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, LOGS, hondartzetako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak eta prestakuntza.

Irun

Euskal Herria Etorbidea, 14 1,2 ateak - 20300 Irun

Tel: 943 62 11 62 / Fax: 943 62 90 92

Presidentea: David Martín Alli

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, garraio egokitua, enplegu-plana, gizarte laguntzak, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Lasarte

Adarra, 1 behea - 20160 Lasarte

Tel: 943 10 30 22 / Fax: 943 55 22 13

Presidentea: José David Muñoz González

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, garraio egokitua, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, prestakuntza eta gazteria.

Pasaia

Portua z/g. 87 posta kutsatila - 20110 Pasaia

Tel: 943 35 41 51 / Fax: 943 39 08 81

Presidentea: Garbiñe García Torrado

Jarduera nabarmenak: Itsas salbamendua, uretako prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, eta prestakuntza.

Errenteria

San Sebastián,3 - 20100 Errenteria

Tel: 943 34 02 04 / Fax: 943 34 02 04

Presidentea: M^a José Martínez Delgado

Jarduera nabarmenak: Komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, lurreko prebentzio-zerbitzuak, Komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Tolosa

Aita Larramendi – Villa Arkaute - 20400 Tolosa

Tel: 943 67 48 88 / Fax: 943 67 52 30

Presidentea: Asier Peñagarikano Zubeldia

Jarduera nabarmenak: Gaixotasun mentalen eguneko zentrua, LOGS, lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, mendiko bilaketa eta salbamendua, etxeko laguntza osagarria, komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Urretxu

Labeaga, 41 - 20700 Urretxu

Tel: 943 72 53 64 / Fax: 943 72 57 09

Presidentea: Tomás Landa Gámiz

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, garraio egokitua, mendiko bilaketa eta salbamendua, komunitatearen mesedetan lana, prestakuntza eta gazteria.

Zarautz

Nafarroa kalea, 23 - 20800 Zarautz

Tel: 943 83 18 63 / Fax: 943 83 53 08

ESSMA - Getaria

Itsas salbamenduko eskola

B mailako ontzien erabilerako kurtsoak

Portu kalea - 20808 Getaria

Tel: 943 14 02 51


Presidentea: Félix Zubia Olaskoaga

Jarduera nabarmenak: Itsas salbamendua, lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, hondartzetako eta igerilekutako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua, larrialdiak, garraio egokitua, gizarte laguntzak, komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Ekonomia-kudeaketa

2009KO JARDUERAREN GASTUAK

JARDUERA	GASTUA	%
Gazteria	48.351,72 €	0,48%
Boluntariotza eta Prestakuntza	1.497.394,84 €	14,72%
Gizarte esku-hartzea	3.771.140,72 €	37,08%
Sorospena eta larrialdiak	3.017.265,18 €	29,67%
Administrazioa - Kudeaketa	781.251,17 €	7,68%
Konponketa eta kontserbazioa	116.325,28 €	1,14%
Nazioarteko lankidetzak, solidaritate-funtsa eta besteak	938.638,32 €	9,23%
GUZTIRA	10.170.367,23 €	100,00%



2009KO FINANTZIAZIO-ITURRIAK


	ZENBATEKOA	%
PRESTATURIKO ZERBITZUAK	6.260.172,62 €	57,14%
FUNTS-BILKETA	1.165.046,12 €	10,63%
DIRU-LAGUNTZA ETA DOHAINTZA PRIBATUAK	3.203.953,25 €	29,24%
KUDEAKETAKO BESTE SARBIDEAK	125.662,50 €	1,55%
FINANTZIARIAK	20.701,16 €	0,19%
KAPITAL DIRU-LAGUNTZAK ETA BESTE	180.891,41 €	1,65%
GUZTIRA	10.956.427,06 €	100,00%

FUNTS-BILKETAREN BANAKAPENA		
Urregorri Zozketa	399.737,50 €	34,31%
Bazkideak	746.850,63 €	64,10%
Besteak	18.457,99 €	1,58%
GUZTIRA	1.165.046,12 €	100,00%

GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIKO BAZKIDEAK

Bazkide kopurua	
2006	8.702
2007	9.554
2008	10.388
2009	11.650

URTEZ URTEKO BAZKIDEEN BILAKAERA



Kalitatea

Gurutze Gorrian, kalitatearen kudeaketak oinarri duen kalitate politika erakundearen helburu eta ikuspegirantz zuzenduta dago.

VI. Batzar Nagusiak zehaztutako nazioarteko estrategiekin koherente izateko, kalitate politika erabiltzaileen eta parte hartzen duten beste parteen beharrak, itxaropenak eta poztasuna identifikatzean datza, bai eta etengabe hobetzean eta prozesuen bidezko ikuspegian oinarritutako metodologia garatzean ere. Betiere, gure kudeaketan konpromiso etikoa eta ingurumenari dagokiona errespetatuz.

Plan, programa eta proiektuetan kalitatea ezartzeko, kalitate-arau eta -sistemak hartzen ditugu babestzat, hala nola, ISO 9001 eta EFQM.

Erakundearen ezarritako kalitate-sistema guztiak mantendu dira estatu-mailan eta probintzia- eta herri-mailan Gipuzkoan. Horiek erakundearen bertan ikuskatu dira, eta egiaztatu direnak erakunde independente batek ikuskatu zituen, Espainiako Normalizazio Erakundeak (AENOR), eta aldeko emaitza eman zuen.

2009an aipatzekoa da ISO 9001:2008 kalitate-egiaztatzea lortu zela, Espainiako Normalizazio Erakundeak (AENOR) Gipuzkoako hondartzetako Gurutze Gorriaren Prebentzio, Salbamendu eta Sorospen zerbitzuari emana.

Esparrua	Eremua	Araua / Sistema
Prebentzio, Salbamendu eta Sorospen zerbitzua	Probintzia eta Udalerria	ISO 9001:2008 ER -1727/2008
Servicio de Prevención, Salvamento y Socorrismo	Probintzia eta Udalerria	ISO 9001:2008 ER -0929/2009
Prestakuntzaren kudeaketa	Estatu-maila	ISO 9001:2008 ER -0385/2007
Boluntariotzaren kudeaketa	Estatu-maila	ISO 9001:2008
Enplegu-plana	Estatu-maila	ONGconcalidad

Finantzatzaile /laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



UNIÓN EUROPEA

Fondo Social Europeo
Invierte en tu futuro



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



kutxa



"la Caixa"



NOKIA
Connecting People



GOBIERNO DE ESPAÑA | **MINISTERIO DE TRABAJO E INMIGRACIÓN** | **SERVICIO PÚBLICO DE EMPLEO ESTATAL**

Eskerrak

Gurutze Gorritik erakunde publiko, enpresa, finantza-entitate eta fundazioen lankidetzak eskertu nahiko genuke, beraien ekarpenei esker proiektu asko aurrera atera ahal izan ditugulako.

Eusko Jaurlaritzak | Gipuzkoako Foru Aldundia | Donostiako Udala | Irungo Udala | Hondarribiako Udala | Errenteriako Udala | Lasarteko Udala | Andoaingo Udala | Tolosako Udala | Beasaingo Udala | Urretxuko Udala | Arrasateko Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Berga-

rako Udala | Eibarko Udala | Ermuako Udala | Elgoibarko Udala | Debako Udala | Zarauzko Udala | Getariako Udala | Zumarragako Udala | Azkoitiko Udala | Kutxa | Euskadiko Kutxa | La Caixa | Nokia | Enpresa pribatu, partikularak, dohaintza-emaile eta bazkide laguntzaile guztiei MILA ESKER.

Gizatasuna

Guda-lekuetan zauritu guztiei, inor baztertu gabe, laguntza ematearen kezka sorrarazi duen Gurutze Gorria eta Illagierdi Gorriaren nazioarteko mugimenduak ahaleginak egiten ditu, bai nazioarteko bere alderdian eta bai nazio barrukoan, gizakien sufrimendua aurreikusten eta arintzen, edozein eratak delarik ere sufrimendu horren eragilea. Bizitza eta osasuna babestera jotzen du eta gizakia errespetatzera. Elkar ulertzea, laguntasuna, lankidetzeta eta herrien arteko bake iraunkorra bultzatzen ditu.

Inpartzialtasuna

Naziotasun, arraza,erlijio, egoera sozial edo iritzi politikoaren arabera bereizketarik ez du egiten. Pertsonen, duten sufrimenduaren arabera, laguntza ematera dedikatzen da, premiak estaliz eta larriren lehentasuna emanez

Neutraltasuna

Denen konfidantza izateko, Mugimenduak ez du gatazketan parte hartzen eta politika, arraza, erlijioa edo ideologia tarteko direla sortzen diren gorabeheretan ez da inola ere sartzen.

Independentzia

Mugimendu independentea da. Agintariei laguntza ematen die beren egiteko humanitarioetan, herrialde bakoitzeko legeriara egokituta. Nazio Erakundeek, halere, beren autonomia izan behar dute, betiere Mugimenduaren printzipioetan oinarrituta, beren ekimena gauzatu ahal izateko

Boluntarioria

Boluntarioz osatutako sorospen-erakundea da, interes gabeko jarduneko

Batasuna

Herrialde bakoitzean Gurutze Gorriko edo Illagierdi Gorriko Elkarte bakarra egon daiteke, denei irekia izan behar duena eta lurralde osora zabaldu behar duena bere jardun humanitarioa

Unibertsaltasuna

Gurutze Gorria eta Illagierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua unibertsala da eta bere baitako erakunde guztiek berak eta elkarri laguntzeko betebeharra dute.